



## TREBAKUNTZA 2015-05: EDO eta ALA

**OHARRA:** izartxoaz eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Honi aiztoa **ala** ganibeta esaten diogu.*
2. \* *Kutxa bakoitzean hamar **ala** hamabi liburuxka sartzen dira.*
3. \* *Hil **edo** biziko kontua da.*
4. \* *Azkenean etorriko zara bilerara, bai **edo** ez?*
5. \* *Ez dakit egia **edo** gezurra den.*
6. \* *Normalean trenez **ala** autobusez joaten naiz.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

#### **EDO**

#### **Erabilerak:**

Erabilerari dagokionez, lehenengo eta behin, esan beharra dago zenbait euskalkitan *edo* dela erabiltzen den juntagailu hautakari bakarra.

*Edo* juntagailuaren erabilerarik ohikoena adierazpen-perpausetan ematen da. Hona hemen zenbait adibide:

- Zein nahiago duzu? Berdin dit: bata EDO bestea.
- Normalean trenez EDO autobusez joaten naiz.
- Aukera bi dauzkazu: etxera joan EDO bertan lo egin.

#### Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

Sinonimoekin eta zenbatzaile zehaztuekin ere erabil daiteke:

**a)Sinonimoak**

- Honi aiztoa EDO ganibeta esaten diogu.
- Ahul EDO makal sentitzen bazara, esadazu.

**b)Zenbatzaile zehaztuak**

- Zazpi EDO zortzi pertsonak deitu dute.
- Bi EDO hiru besterik ez zaigu falta.

Hainbat esapidetan ere erabiltzen da:

- Zirt EDO zart (hala ere, “Zirt ALA zart” ere erabili izan da, noiz edo noiz)
- Behin EDO behin
- Nola EDO hala

## **ALA**

**Erabilerak:**

Erabilerari dagokionez, galde-perpausetan edota zehar-galderetan erabili ohi da maiz, eta gehien-gehienetan elkarren baztergarri diren aukerak adierazteko. Bestela esanda, aukera bat hartzeak besteak baztertzea dakarrela adierazteko.

Hona hemen zenbait adibide:

- Nola joango zara, autoz ALA hegazkinez?
- Benetan diozu ALA txantxetan ari zara?
- Noiz etorriko da, gaur ALA bihar?

Antonimoekin:

Juntagailu hau, maiz, antonimoekin erabiltzen da. Hona hemen adibide batzuk:

- Azkenean joango zara, BAI ala EZ?
- Zein koloretakoa da, ZURIA ala BELTZA?
- Ez dakit EGIA ala GEZURRA den.

**Beraz:**

1. Honi aiztoa **edo** ganibeta esaten diogu.
2. Kutxa bakoitzean hamar **edo** hamabi liburuxka sartzen dira.
3. Hil **ala** biziko kontua da.

**U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

4. Azkenean etorriko zara bilerara, bai **ala** ez?

5. Ez dakit egia **ala** gezurra den.

6. Normalean trenez **edo** autobusez joaten naiz.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Ibon)

Hurrengora arte!

**U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99